



haurtzaro bakoitzarentzat



# NIRE ESKUBIDEAK...

Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko erakusketaren gida didaktikoa ikastetxeetan erabiltzeko

# NIRE ESKUBIDEAK...

## Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko erakusketaren gida didaktikoa ikastetxeetan erabiltzeko

“Nire eskubideak...” erakusketa helburu honekin diseinatu da, ikastetxeak haurren eta nerabeen eskubideei buruzko hezkuntza-jarduerak adin desberdinetako taldeekin egin ahal izatea. Gida honetan zenbait argibide aurkituko dituzu, biltzen dituen baliabide didaktikoetako batzuei ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko. Zalantza praktikoak badituzu zure ikastetxean erakusketa eskatzeko edo muntatzeko prozedurari buruz, kontsulta ezazu web-orri hau:

[www.unicef.es/eus/educa/blog/eskubideen-esposizioa](http://www.unicef.es/eus/educa/blog/eskubideen-esposizioa)

### GOMENDIO OROKORRAK

- Berrikusi erakusketaren edukiak taldeei aurkeztu aurretik. Erakusketa honek, hizkera errazean, haurren eskubideen ezaugarriak azaltzen ditu (gainerako giza eskubideekin partekatutak). Gai konplexua da eta nolabaiteko abstrakzio-maila du; beraz, beharrezkoa izan daiteke alderdiren batean oinarritzea, adibideak erabiltzea, irudiez baliatzea, galderak egitea eta eztabaida irekitzea.
- Panelen edukiak garapen didaktikoak ahalbidetzen dituzte Lehen Hezkuntzatik abiatuta, ikasleen adinaren eta heldutasun-mailaren arabera. Txikienekin, denbora gehiago eskaini ahal izango diegu istorioei eta irudiei. Handiekin, berriz, eztabaida zabalagoak proposatu ahal izango ditugu, eskubideen ezaugarrietan oinarrituta. Erakusketa, eskatzen duen hausnarketa-mailagatik, ez dago Haur Hezkuntzari zuzendua, baina baliagarria izan daiteke haurren eskubideak ikasleen familiarekin lantzeko.
- Panel bakoitzaren garapen didaktikoko nahiko denbora behar izango dugu agian. Beraz, komeni da alde aurretik hautatzea sakontasun handiagoaz landu nahi ditugun panelak, edo erakusketa saio batean baino gehiagotan bisitatzea, panel guztiak landu ahal izateko.
- Edukiak egokiak dira haur eta nerabe bakoitzak bere hausnarketa egin dezan. Hala ere, hezkuntza-dinamika baten barruan edukiak elkarrekin landuz gero lortzen da onurarik handiena.
- Gida honek zenbait galdera proposatzen ditu eskubideen ezaugarriei buruzko eztabaida pizteko. Baina hau ez da erakusketa didaktikoki lantzeko modu bakarra: erakusketa edukien oinarri gisa erabiliz gero, hainbat jarduera egin ditzakezue, tartean ginkanak, antzezpenak, rol-jokoak... Jardueraren bat aurrera eramaten baduzue, pozik hartuko genuke horren berri, jakiteko zer moduz joan den dena. Partekatu ezazu jarduera, gure helbide honetara idatzita: [educacion@unicef.es](mailto:educacion@unicef.es)



haurtzaro bakoitzarentzat

## NIRE ESKUBIDEAK... GIZA ESKUBIDEAK



**Pertsona guztiek, gizaki izateagatik, giza eskubide izeneko eskubideak dituzte. Haurrok eta nerabeek ere bai, baina gure kasuan, eskubide horiek are bereziagoak dira: haurren eskubideak ditugu, hau da, haurren eta nerabeen beharrak, egoerak eta ezaugarriak babesten dituzten giza eskubideak. 18 urte baino gutxiago badituzu, horiek dira zure eskubideak!**

#eskubideenhezkuntza



HAURREN  
ESKUBIDEI  
BURUZKO  
KONBENTZIOA



## 1. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... GIZA ESKUBIDEAK

Panel honek irekitzen du erakusketa eta giza eskubidetzat aurkezten ditu haurren eskubideak, balio eta garrantzi berarekin. Hona hemen panel honetako bisita dinamizatzeko galdera batzuk:

- Badakizu zer diren giza eskubideak?
- Zer esan nahi du haurren eskubideak giza eskubideak izatea?
- Zure ustez haurren eskubideek beste kolektibo batzuen giza eskubideek baino balio handiagoa, txikiagoa edo berdina dute? Zergatik? (Pista: erantzun zuzena da berdin balio dutela).
- Zure ustez zer gertatuko litzateke batzuen giza eskubideek besteenek baino gehiago balioko balute?

Galdera guztiak erabil ditzakezu edo, bestela, taldearen hezkuntza-beharretara ondoen egokitzen direnak aukeratu.



## 2. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... OINARRIZKOAK

Panel honetan hausnarketa bat egingo dugu, oinarritzko eskubide bat zer den jakiteko.

- Zer esan nahi du zerbait "oinarritzkoa" izateak?
- Zer da oinarri bat? Bururatzen zaizkizu adibideak?
- Zer gertatzen da oinarritzko zerbait falta zaigunean? Bururatzen zaizkizu adibideak?
- Zer gertatuko litzateke eskubiderik izango ez bagenu? Izango genuke gizarteratzeko aukera? Bizitza duin bat izateko aukera? Gure beharrak betetzeko aukera?
- Batzuetan ez gara jabetzen oinarritzkoak diren gauzez eta ia ez ditugu ikusi ere egiten. Zure ustez batzuetan ziurtzat hartzen ditugu eskubideak?
- Argazkiak osasunerako eskubideari buruzko istorio bat irudikatzen du: Zergatik esango zenuke osasunerako eskubidea oinarritzko eskubide bat dela?
- Begiratu beste panel batzuetako argazkietan irudikatzen diren eskubideak. Zure ustez horiek ere oinarritzkoak dira? (Pista: bai, guztiak dira oinarritzkoak).



### 3. PANELA:

## NIRE ESKUBIDEAK... UNIBERTSALAK

Eskubideez hitz egitean filosofiako kontzeptutzat hartzen da unibertsaltasuna, baina ez “unibertsoari lotutako” zerbait balitz bezala. Haurren eskubideen unibertsaltasunak zer esan nahi duen ulertzeko garrantzizkoa da desberdintasun hori ulertzea.

- Zer esan nahi du “unibertsala” hitzak? Nola definitzen da hiztegian? Eskubideez hitz egitean, zertaz ari gara: unibertsoaz edo beste gauza batez?
- Haurren eskubideak unibertsalak badira, zure ustez zenbat haurrek eta nerabek dituzte eskubide horiek? (Pista: munduko guztiek, 2023ko datuen arabera 2.397.435.502 haur eta nerabek).
- Argazkiak berdintasunerako eskubideari buruzko istorio bat irudikatzen du. Gauza askotan izan gaitezke Maricicarengandik desberdinak: adina, garaiera, ile-kolorea, nazionalitatea... Baina, berdinak dira Maricicaren eskubideak eta gureak? (Pista: erantzun zuzena bai da).



### 4. PANELA:

## NIRE ESKUBIDEAK... ELKARREN MENPEKOAK

Panel honetan hausnarketa bat egingo dugu eskubideen artean dagoen lotura estuari buruz: eskubide batzuk ukatzen badira, besteak arriskuan jartzen dira.


- Panelak alderatu egiten ditu haurren eskubideak eta sare bat. Zer gertatzen da sare bat alde batean hausten denean? Sare hautsi bat berehala konpontzen ez badugu, zer gertatzen da azkenean?
- Zure ustez zer ondorio du gure eskubideetan haietako bat urratzen denean? Zer gertatuko litzateke sarea konponduko ez balitz? Adibidez: Zer ondorio izango luke beste eskubide batzuetan hezkuntzarako eskubiderik ez izateak? Zer ondorio du hezkuntzan beste eskubide batzuk ez izateak? Zer gertatzen da norbaitek ez duenean inoiz sarbiderik izan hezkuntzara? Zer gertatuko litzateke familia oso batean, auzo batean edo herrialde batean inork ezin izango balu hezkuntzarako sarbiderik izan?
- Era honetako galderak egin ditzakezu beste eskubide batzuekin, elkar loturaren nozioa indartzeko.



## 5. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... BANAEZINAK

Eskubideen zatiezintasunaz hitz egiten dugunean, eskubideak ezin ditugula banandu esan nahi dugu. Ideia zentzugabea dirudien arren, garrantzitsua da hori lantzea. Izan ere, eguneroko bizitzan, pertsona asko bizi da kontzeptu hori ondo ulertu gabe.

- Zer esan nahi du zerbait banaezina izateak? Bururatzen zaizkizu zatitu ezin diren gauzen adibideak?
- Adibidez, ikasgelan: Zentzurik izango luke ikasle bakoitzak gai bakar bat ikasteak? Afari batean: Zentzurik izango luke mahaikide bakoitzak platerako osagai bakar bat jateak? Zentzurik izango luke haur batzuek eskubide batzuk izateak eta beste batzuek beste eskubide batzuk izateak?
- Argazkian ingurumenerako eskubidearekin lotutako irudi bat ikusten dugu. Uholdeek kalte handiak ekarri dizkiete Safiri eta bere familiari. Zure ustez zein gehiagoren kalterako izan daitezke halako uholde baten ondorioak? (Pista: beste nekazari batzuentzat, tokiko merkatarientzat, kontsumitzaileentzat, esportatzaileentzat, beste herrialde batzuetako jendearentzat, nekazaritzarekin zerikusirik ez duten beste negozio batzuentzat...)
- Ingurumenerako eskubidea banaezina da: Bururatzen zaizkizu beste eskubide batzuen zatiezintasuna erakusten duten adibideak?



## 6. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... BESTERENEZINAK

Haurren eskubideak ezin dira aukeratu, eta haiek betetzeko obligazioak dituzte “eskubideen bermatzaile” deitutako pertsonak eta erakundeak. Panel hau lagungarria izango zaigu ideia horretan sakontzeko.

- Zer esan nahi du “besterenezina” hitzak? Badakizu nondik datorren? Bilatu hitzaren etimologia bere sorburuaz gehiago jakiteko.
- Zure ustez zergatik dira besterenezinak haurren eskubideak eta beste giza eskubide batzuk? Zure ustez zer gertatuko litzateke horrela ez balitz?
- Zer gertatzen da haurren eskubideak urratzen direnean? Bururatzen zaizu adibiderik? (Pista: delitu-motak izaten dira, esaterako, abandonua, zabarkeria, tratu txarrak, esplotazioa, gerra-krimenak...) Adibidez: haurtxo batek osasunerako eskubidea izan dezan, gobernuek osasun-zentro espezializatuak bermatu behar dituzte, familiek arreta medikoa eskatu behar dute haurtxoa gaixotzen denean, eta osasun-langileek behar medikoari erantzun behar diote larrialdiaren eta larritasunaren arabera. Eskubideen bermatzailearen batek ez badu bere obligazioa betetzen, zabarkeria baten aurrean gaude.
- Argazkiak jaitotza-erregistrarako eta identitaterako eskubidea besterenezina dela erakusten du. Zer gerta dakioko inongo lege-erregistrotan agertzen ez den haur edo nerabe bati? Nork bermatu behar du haur batek izen bat eta nazionalitate bat izateko duen eskubidea?



## 7. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... UKAEZINAK

Haurren eskubideen ezaugarri hau besterenezintasunaren beste aurpegia da: eskubide horiek ezin dituzte hirugarrenek ukatu edo bazter utzi, eta eskubide horien subjektuak berak ezin die eskubide horiei borondatez uko egin.

- Badakizu zer esan nahi duen “uko egiteak”? Bururatzen zaizkizu hitz horren sinonimoak eta antonimoak? Zer esaldi bururatzen zaizkizu “uko egitea” hitzarekin?
- Zer gauzari uko egin dakioke eta zer gauzari ezin zaio uko egin? Adibideak bururatzen zaizkizu?
- Zer alde dago zerbaiti uko egitearen eta zerbaiti ezetz esatearen artean? Adibidez, gauza bera al da iritzia emateko eskubideari uko egitea eta elkarrizketa batean zure iritzia eman nahi ez izatea? (Pista: ez da gauza bera, izan ere, une jakin batean iritzia eman nahi ez izatea gure adierazpen-askatasunaren parte ere izan daiteke).
- Argazkiak eskubide kulturalak erakusten ditu eskubide ukaezinen adibide gisa. Badakizu zeintzuk diren eskubide kulturalak? Arriskuan egon daitezkeen adibideak bururatzen zaizkizu? Zure ustez zergatik da garrantzizkoa eskubide kulturalak ukaezinak izatea?



## 8. PANELA: NIRE ESKUBIDEAK... TRANSFERITU EZINAK

Norberaren eskubideei uko ezin egiteak esan nahi du ezin direla laga. Ondoko galderek ideia hori ulertzen lagunduko digute.

- Zer esan nahi du zerbait transferitu ezin izateak? Gauza lagaezinen adibideak bururatzen zaizkizu?
- Zergatik ezin dira haurren eskubideak laga? Bidezkoa irudituko litzaizuke eskubide horiek beste pertsona batzuei transferitzea? Zure ustez zer esan nahi du haurren eskubideen gaineko obligazioak laga ezin izateak? Bidezkoa irudituko litzaizuke pertsona edo erakunde batzuek eskubide horiez arduratu nahi ez izatea?
- Argazkiko eskubidearen adibideak erakusten du, eskubide hori erabiltzean, delegatu egin daitekeela baina ezin dela laga: parte hartzeko eskubidea. Zer da delegatu bat edo ordezkari bat? Ezagutzen duzu bateren bat? Adibiderik bururatzen zaizu non zure parte hartzea delegatu ahal izango duzun parte hartzeko duzun eskubideari uko egin gabe?



## 9. PANELA:

# NIRE ESKUBIDEAK... DENBORAZ KANPOKOAK

Eskubideen ezaugarri honi buruzko hausnarketa bat egiteko, garrantzizkoa da bereiztea zer den bidezkoa eta zer legezkoa. Adibidez, esklabotza legezkoa zen iraganean, baina bidegabekia izan da beti.

- Zer esan nahi du “modan egoteak”? Zer motako gauzak “daude modan” eta zeintzuk ez dira inoiz zaharkitzen? (Pista: familia, jolastea, osasuna, hezkuntza... ez dira inoiz zaharkitzen).
- Esango zenuke bizitzako gauza benetan garrantzizkoak ez direla zaharkitzen?
- Zergatik uste duzu eskubideak ez direla ez zaharrak ez modernoak?
- Iraganean, haurrak beste pertsona batzuen esklabo edo soldadu izan zitezkeen. Orduan legezkoa zen, baina bidezkoa iruditzen zaizu? Haien eskubideak urratzen ari zirela esango zenuke?
- Zer gertatzen da haurren eskubideak arriskuan jartzen dituzten gerrak bezalako gauzak gertatzen direnean? Horrek esan nahi du eskubide horiek jada ez dutela balio? (Pista: ez, esan nahi du gerrak mehatxu bat direla haurren eskubideentzat).



## 10. PANELA:

# NIRE ESKUBIDEAK... HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOAN

Aurreko panelean ikusi dugu legeak eta eskubideak ez direla gauza bera. Honetan, eskubideak legeetan islatzearen garrantziaz hitz egingo dugu.

- Badakizu zer den lege bat? Badakizu zer lege-mota den nazioarteko itun bat? Ikusi duzu ikasgelan ituntzearen adibideren bat?
- Zergatik da garrantzizkoa haurren eskubideak lege izatea? Zer gerta liteke haurren eskubideak jasotzen dituen legerik ez balego?
- Argazkiak Konbentzioan aitortutako eskubide bat irudikatzen du, batzuetan behar bezala eta serio hartzen ez dena: atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea. Zer gertatuko litzateke legeek haurren eskubide hori onartuko ez balute? Zer ondorio izan ditzake?

# NIRE ESKUBIDEAK...

Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko erakusketaren gida didaktikoa ikastetxeetan erabiltzeko

## Edizioa

Haurren Hezkuntza eta Eskubide Digitalak arloa  
Eragina, Programak eta Aliantzak zuzendaritza  
UNICEF Espainia  
Mauricio Legendre, 36. 28046 Madril

## Diseinu grafikoa

Rex Media SL

Madril, 2023ko urria

[www.unicef.es/educa](http://www.unicef.es/educa)

Haurren eskubideei, garapen jasangarriari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntzako materialak, baliabideak eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzan egindako lanaren parte dira.

UNICEFek haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu egiten dugun guztian. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten dugu konpromiso hori ekintza praktikoko bihurtzeko, eta bereziki haur kalteberenengana eta baztertuenengana iristeko ahaleginak egiten ditugu, haur guztien onerako, leku guztietan.

## FINANTZATZAILEA:



hautzaro bakoitzarentzat